

EITBko zuzendaritzak betoa ezarri die Gorordo eta Korrikari Terminus saioan

Elene Lizarralde zuzendariak dimisioa aurkeztu du eta saioa bukatu egin da

Euskal Telebistako zuzendaritzak betoa ezarri dio ETB 1-eko Terminus programan Jose Maria Gorordorekin hitz egiteko zuten asmoari, eta harekin Korrika 7ari buruz egin nahi zuten saioari. Terminus programak ez du betoa onartu eta zuzendaritzak emanaldiak bukatzera behartu ditu.

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

Elene Lizarralde Terminus saioko zuzendariak atzo eguerdian jakinerazi zuenez programa utzi aurretik beste bi grabatu egin beharko dituzte eta horiek izango dira azkenengoak.

Ostegun gaueko hamaikak eta hamar minututan ematen du ETBko lehendabiziko kateak Terminus programa. Aste honetako saioan Bilboko alkate izan den Jose Maria Gorordo zuten eramatekoa hurrengo egunean hasiko den Korrikari buruz hitz egitera, besteak beste. Programa ezberdinen arteko koordinazioa ziurtatzeko ohizkoa da ETBko zuzendaritzari saioan zer izango den adieraztea. Zuzendaritzak ostegun honetako gaueko pelikula luzea izango dela argudiatuz aste honetan Terminus programa kentzea erabaki zuen. «Gorordok zein Korrikak aste bete beranduago ere izango duten aktualitatea kontutan hartuz», Elene Lizarralde, datorren asteko osteguneko saiorako edukia mantentzea erabaki zuen, «gizartearentzat informazio interesgarria delako».

«Euskal Telebistako zuzendaritzak ordea betoa mantendu dio Gorordo eta Korrika Terminusen izateari» programaren arduradunek adierazi dutenez. Elene Lizarralde

✓ Lizarralde bere ordezkoa eskatu zuen, baina ETBk ez zuen ordezkorik jartzerik onartu eta beste bi grabatu ondoren saioa bukatutzat emango du.

Saioa egiten zuten erredaktoreen artean hiru langile fijo daude ETBn eta beste hirurek berriz lan jakin baterako kontratua dute.

zuzendariak betorik ez duela onartzen eta, bere dimisioa aurkeztu zion telebistako zuzendaritzari, «edukia-ekin konforme ez banago nik ez dudalako programarik sinatuko», esan zuen Lizarralde.

Erredakzio hau EITBko zuzendaritzakoekin hitz egiten eta beren bertsioa ezagutzen saiatu zen atzo arratsaldean baina ezin izan zuen inor harrapatu.

Elene Lizarralde bere ordezkoa eskatu zuen, baina Euskal Telebistak Terminusen aurrera segitzekotan eta inork zuzentzekotan Lizarralde berak zuzendu beharko lukeela eginez programa bertan behera uzteko erabakia adierazi zien atzo goizean Terminus egiten dutenei.

Saioa egiten zuten erredaktoreen artean hiru langilek kontratu normala dute ETBn eta beste hirurek berriz lan jakin baterako kontratua dute. Azken hauei orain lana bukatu zaie eta pentsatzekoa da beren kontratuak ere bere horretan geltiko direla.



Elene Lizarralde, Terminus programako zuzendari izan dena.

EGUNKARIA

«EITB eta Korrika»

«Eusko Irrati Telebistak ez dio Korrikari laguntzarik emango berriz» esan zuen Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak orain ia bi urte Korrikaren seigarren edizioa bukatu ondoren Gasteizko legebiltzarrean.

Ez dira beraz oraingo hauek EITB eta Korrikaren arteko lehendabiziko gorabeherak. Aurreko edizioan Korrikaren karteletan eta telebistan publizitatea trukatzeko kontratua sinatu zuten AEK eta EITBk. Laguntza horien arrazoia azal zitzen eskatu zion Odon Elorza PSE-PSOEko parlamentariak Arregiri. Kultura eta Turismo sailburuak laguntza horren berri berandu izan zuela aitortu zuen, eta atzera eginez zuten saiatu zela baina kontratuak bete beharra zegoela.

1989ko maiatzaren 11ean Gasteizko Legebiltzarrean egindako adierazpenetan AEKri laguntza emana sentitzen zuela esan zuen Arregik eta «horrelakorik berriro ez zela gertatuko». Joseba Arregik EITBren funtzioetarikoa bat euskara laguntzea zela esan zuen, baina euskararen etorkizunak instituzioen arteko lan koordinatu batean oinarritu behar lukeela adierazi zuen. Ezin lekiokela laguntzarik eman erakunde horien kontra egiten etenik gabe ari denari.

Zadorra eta Ordunteko urtegiek 12 milioi metro kubiko ur jaso dute

VASCO PRESS / BILBO

Zadorrako urtegiak 12 milioi metro kubiko ur gehiago dauka otsailaren 2an ur-murrizketak bertan behera utzi zirenetik. Ur-murrizketa hauek Gasteiz eta Bilbo Handian izan dira, Ur Partzuergoak adierazi duenez.

Igande goizeko zortzietan Zadorrako urtegiek 108.694 milioi metro kubiko ur zituzten. Haei, Ordunte urtegiak 22.181 milioi gehitu behar zaizkie. Bilduta dauden ur kopuruak, Bilbo Handia eta Gasteiz hornitzen duten urtegi guztien % 59 suposatzen du.

Otsailetik hona eta euriaren ondorioz gaurdaino jasotako ur kopurua metro karratuko 50 litrokoa da.

Ur Partzuergoak aditzera eman duenez, euritak jasotako kopu-

rua ezkorra bada ere, ur-erreserbek goraka egin dute. Eta honen arrazoiak, Zallan dagoen Sollano-ko depuradorean egiten ari diren lanei esker iristen den ura da.

Ur-murrizketak bertan behera geratu badira ere, orain dela bi urte herritarrek kontsumitzen zutenarekin konparatuz, % 14 gutxiago kontsumitzen da gaur egun. Ur Partzuergoaren esanetan, gutxiago kontsumitzen da hiritarrek eta industriak uraren erabilera hobea egiten duelako. Hornikuntzan uraren alperrikako galera ezabatzeke egindako kanpaina ere zerikusi handia du Partzuergoaren esanetan. Kanpaina hau dela eta, 800 kilometro baino gehiagoko tuberiak aztertu dira, eta segunduko 200 litro ur galtzen zuten 1.200 inguru ihesbide konpondu dira.

Sei milioi pezeta atzeman dira bilete faltsutan Irunen

J.G. / DONOSTIA

Bi lagun atxilotu zituen Polizia Nazionalak Behobiako mugan eta sei milioi pezetatik gora bilete faltsutan hatzeman zien. Iragan martxoaren 6an burututako operazioan bi pistola, manipulaziorako hainbat tresneria, droga eta faltsifikatzeko agiriak ere aurkitu zituen Poliziak.

Atxilotutakoak hogeitamabost urteko V.S.G. eta frantziako nazionalitateko F.P.B., berrogeitamabost urtekoa dira. Gobernu Zibilak aditzera eman zuenez, bi faltsifikatzaileak Donostian bizi ziren, nahiz eta Euskal Autonomi Elkarte guztian aritu.

Amara auzoko hainbat solairutan egindako miaketetan hoge kreditu txartel baino gehiago topatu zituen Poliziak eta faltsifikatzeko elementuak. Era berean, arakatutako autoetarikoa batean bi pistola aurkitu zituzten, 250 gr 'speed', 10.000 pezetat-

tako billete ugari eta nortasun zein gidatzeko agiriak, faltsifikatzeko gertu.

Halaber, Poliziak burututako ikerketan zehar bost auto hatzeman zituen Poliziak Irun eta Donostian, Peugeot 205, BMW eta Volkswagen Golf markakoak eta guztiek matrikulak aldatuta zituzten.

Bestalde, bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak iragan asteazkenean Balmasedan, bileteak faltsifikatzeko delitupean. Herriko denda batean bi gazte 10.000 pezetatako gezurrezko bilete batekin ordaindu zutela jakitean hasi zituen Ertzaintzak ikerketak. Behin etxean aurkitu ondoren, hemezortzi urteko Angel M.L. atxilotu zuten eta segidan aurrekoari bileteak eman zizkion 30 urteko Salvador P.M. Ertzaintza ikerketekin jarraitzen du eta ez ditu faltsifikazio horiekin zerikusirik duten atxiloteta berriak deuseztatzen.

LABURREAN

ZAZPI kilo t'erdi heroína atzeman dituzte Biriatuan

Zazpi kilo t'erdi heroína atzeman zituzten joan zen asteazkenean, Espainia eta Frantziako estatuen artean muga egiten duen Biriaturko herrian. Hala adierazi du Baionako Aduanetako Zuzendaritzak. Ohizko kontrol batean aurkitu zuten droga frantsez agenteek. Drogaren balioa liberatan sei milioi da (120 milioi pezeta inguru). Droga holandar matrikulako kamioi bateko gasolina depositoan zegoen. Bilbon berriz 10.000 heroína dosi atzeman zizkien Udaltzaingok bi laguni.

OKONDON urkaturik azaldu da edadetu bat

Okondon (Araba) hirurogeitamabost urteko edadetu bat urkaturik azaldu zen bere etxean. Ertzaintzak aditzera eman zuenez, L.I.U. ren gorpua bere baserriko gela batean eskegita zegoen eta bere emaztea eta iloba batek aurkitu zuten. Ondoren, Ertzaintza zein herriko medikuari abisua eman zieten. Amurrio epailea bertara joan eta hildakoaren gorpua jasotzeko agindua eman ondoren Basurtoko eritxeko depositora eraman zuten.

FERE eta Eusko Jaurlaritzaren komenioa irakasleak euskalduntzeko

Juan Jose Brunet, Irakaskuntzako Zentru Erljiosoan Elkarte(FERE) lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza arduraduna den Inazio Oliverik irakasleak euskalduntzeko komenioak lortzeko nahia azaldu zuten atzo Gasteizen.

OSASUN laguntzarako dekretu batek gastu eskasak eragin ditu

1989an Euskal Autonomi Elkarte Osasun laguntzaren unibertsalizaziorako dekretuaren aplikazioak ondorioztaturiko gastua 284,4 milioi pezetakoa izan da. Gehikuntza txikia erakusten du honek aipatu erakunde autonomoaren gastu osoan. 1989an 13.452 pertsona bildu ziren dekretu horretara eta honek 284,4 milioi pezetako gastua erantsi zion Osakidetari, hots, erakunde autonomo honen gastu osoaren % 2. Aurrikusitakoa baino 39,1 milioi pezeta gutxiago gastatu ditu Erakunde autonomoak.